

1611, Oiartzungo bailara eta izen bat: Maria de Yllarra.

Maria zehazki nongotarra zen inoiz jakingo ez dugun arren, Illarratzu, Oiartzungo parajekoa izan zitekeela sinetsiko dugu gaur, hala baitzioten zurrumurruek. Jaizkibel itsas magaletako akelarreetara joaten omen zen maiz, deabruarekin berarekin ere larrutan egina omen zen Maria. Maiz ikusi omen zuten Jaizkibela bidean, Hondarribiko harresi eta teilatuetan barrena.

Maria zehazki nolakoa zen inoiz jakingo ez dugun arren, askea zela sinetsiko dugu gaur. Mundua arakatzeko askea, maitatzeko, arriskatzeko, jakituria elikatzeko, bere gorputzaz gozatzeko askea.

Maria zehazki nolakoa zen inoiz jakingo ez dugun arren, indartsua zela sinetsiko dugu gaur. Emakume rola apurtzeko, loturetatik askatzeko, beldurrak gainditzeko indartsua.

Maria zehazki nolakoa zen inoiz jakingo ez dugun arren, jakintsua zela sinetsiko dugu gaur. Arbasoek xuxurlatutakoa gordetzeko adina jakintsua, herriko alabei bizitzaren sekretuak transmititzeko adina jakintsua. Akelarreetan beldurrak erre eta aliantzak sortzeko adina jakintsua.

Akelarreetan beldurrak erre eta aliantzak sortzeko adina jakintsua, indartsua eta askea izan zen Maria de Illarra.

Beldurrak, aliantzak, askatasuna, beldurrak, aliantzak askatasuna, beldurrak, aliantzak askatasuna. Erre, sortu, borrokatu.

Beldurrak. Zergatik izan gara pentsatzeko beldur? Zergatik dugu gure iritzia emateko beldurra? Ezberdina izatekoa? Akatsak egitekoa? Epaitua izatekoa? Zergatik naiz nahi dudana bezalakoa izan eta bizitzeko beldur? Zergatik hezi naute beldurretik? Nazkatu gara

beldurrekin bizitzeaz, esan dezagun ozen, beldurrik gabe bizi nahi dugula eta biziko garela! Beldurrak erretzeko garaia da!

Aliantzak. Sutan erre zituzten emakumeen alabak gara, zahartu ahala jakintza pilatu dugunak, gu askeago bizitzeko borrokatu eta ondoroengoei transmituko diegunak. Oiartzungo emakumeak saretu egingo gara, besoetatik eta bizkarretik elkar eutsiz aliantza iraunkorrak josiko ditugu hari more sendoz. Aliantzak sortzeko garaia da!

Askatasuna. Akelarreak twiteatuz, etxeko su txikiko saldak plazan partekatuz, trapu zikinak elkarrekin garbigailuan garbituz, patriarkatuaren historia ipurdi bistan utzi eta alternatibak asmatuz, zaintzaren paradisu artifizialak errez, pentsalari, ausart, jakintsu, aske izateko, batu borroka feministara! Borrokatzeko garaia da!

Beldurrak, aliantzak, askatasuna, beldurrak, aliantzak askatasuna, beldurrak, aliantzak askatasuna. Erre, sortu, borrokatu.

Zapaltzen gaituen sistemari sua! Gora Oiartzun feminista!